



JUSTIZIA MINISTERIOA

DEIALDIA: PCM/188/2021 Agindua, martxoaren 2koa.

PLANTILLA DEFINITIVA DE RESPUESTAS

EXAMEN ABOGACÍA MODALIDAD ON LINE 5 DE JUNIO

ABOKATUTZAN ARITZEARI BURUZKO GAI KOMUNAK

1 - Jaume 2021eko urtarrilaren 10ean sartu da abokatuen elkargo batean, ez diharduen elkargokide gisa. 2021eko apirilaren 25ean deialdia egin dute elkargo horretako dekanoa eta gobernu-batzarreko gainerako karguak izendatzeko. Jaumek hauteskunde horietan izan dezakeen parte-hartzeari buruzko esaldi haueetatik, zein da zuzena?

- a) Ezin izango du hautesle gisa parte hartu, ez delako igaro parte hartzeko behar den epea.
- b) Dekanorako hautagai aurkeztu daiteke, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrak ezartzen duen epea igaro delako sartu zenetik.
- c) Hautesle izan daiteke, baina bere botoak ez du jarduneko abokatuen botoaren balio bera.
- d) Deialdi horretan hautatu behar diren karguetatik bat baino gehiagotarako hautagai izan daiteke.

2 - Juan Jose abokatua da, eta bere bezero Miguelek ez dizkio zerbitzu-sariak ordaindu utzarazpeneko prozedura judizial batean parte hartzeagatik. Juan Josek bere zerbitzu-sariak erreklamatzeko erabaki du, eta Prozedura Zibilaren Legearen 35. artikuluan araututako prozedura erabiliko du horretarako. Beraz, minuta xehatua aurkeztu du, eta adierazi du zerbitzu-sariak zor zaizkiola eta ez direla ordaindu. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Behin erreklamazioa aztertuta, epaileak errekerimendua egingo dio zordunari, kontua ordaindu edo aurkaratu dezan hamar eguneko epean.
- b) Juan Josek prokuradore bat izendatu beharko du erreklamazioa aurkezteko, baldin eta minuta 2.000 eurotik gorakoa bada.
- c) Miguelek errekerimendua jaso eta ez badu aurkakotzarik formulatzen hamar eguneko epean, betearazpena abiaraziko da minutaren zenbatekoa estaltzeko hainbestean.
- d) Miguelek kontua aurkaratu ahal izango du, zerbitzu-sariei bidegabe edo gehiegizko irizten badie. Miguelek bi arrazoi horietako edozeinengatik aurkaratuz gero, Justizia Administrazioaren letratuak dekretu bat eman beharko du dagokiona ebatziz, aurkeztutako aurkaratzearen berri Juan Joseri eman beharrik gabe, hark minuta zehatza aurkeztu behar izan baitzuen erreklamazioa egitean.

3 - Botere Judizialaren Lege Organikoaren arabera, ezarri al daiteke emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiren bat, jurisdikzioa bi barruti judizialean edo gehiagotan duena?

- a) Ez. Barruti judizial guztietan beti eta nahitaez egon behar delako emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi bat.
- b) Bai. Gobernuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposatuta eta, hala badagokio, Justiziaren arloan eskumenak dituen autonomia-erkidegoaren txostenarekin, errege-dekretu bidez ezarri ahal izango du zehazten diren emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek probintzia bereko bi barruti edo gehiagotara zabaltzea beren jurisdikzioa.
- c) Bai, baina lege-mailako arau bidez bakarrik egin ahal izango da.
- d) Bai, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erabaki ahal izango du, dagoen lan-kargaren arabera komenigarria denean, betiere gobernu-salen eta eraginpeko autonomia-erkidegoaren aldeko txostena badago.

4 - Marcos abokatua da lanbidez, eta ordezkapen profesionalaren berri eman dio Felipe abokatuari, zeina Veronica defendatzen ari baitzen zenbatekoak erreklamatzeko prozedura arrunt batean. Felipek, arduraz, ordezkapenaren berri jaso duela adierazi dio Marcosi, eta bere esku duen dokumentazioa entregatu dio; dena den, hiru hilabete baino gehiago igaro badira ere, Veronicak ez dizkio zerbitzu-sari profesionalak ordaindu Feliperi. Kasu horretan,

a) Feliperi zerbitzu-sariak ordaindu ez zaizkion neurrian, Felipek ez du jasotako informazioaren eta dokumentazioaren gaineko sekretu profesionala errespetatzeko eta gordetzeko betebeharririk.

b) Feliperen eskubidea da bere esku-hartze profesionalari dagokion zerbitzu-sariak erreklamatzeari, eta Marcosek arduraz lagundu beharko du ordainketa horri dagokiona kudeatzeko.

c) Felipek egoeraren berri eman behar dio kide den elkargo profesionalari, eta elkargoak hamar egun balioduneko epean jakinaraziko dio Marcosi ezin duela Veronica defendatu harik eta Feliperi zerbitzu-sariak ordaindu arte.

d) Marcosek prozeduran pertsonatu ahal izango du, eta gai horretan jardun ahal izango du, baldin eta komunikazioa idatzia izan bada, eta ez du bestelako kudeaketarik egin beharko Feliperen alde.

5 - Abokatutzaren Estatutu Orokorra jasotzen duen arauketaren arabera, elkargo batek bere estatutu partikularrak aldatu nahi baditu, zer prozedura bete behar du?

a) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak egingo du proiektua, eta dagokion elkargoko gobernu-batzarrari dagokio hura onartzea.

b) Elkargoaren ezohiko batzar nagusiak onartu behar du aldaketa-proiektua, eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari aurkeztu behar zaio, onar dezan.

c) Ez da beharrezkoa Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren onespena; izan ere, dagokion elkargoak onartutakoa bete beharko du beti.

d) Ez da beharrezkoa Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak esku hartzea, aldaketa hutsa baino ez delako.

6 - Bartzelonako Abokatuen Elkargoak Roberto zigortu du arau-hauste deontologiko batengatik, eta lanbidean jarduteko desgaitasuna ezarri dio, hilabeterako. Zehapena berresten duen epaiaren irmotasuna jakinarazi diotenean, Roberto konturatu da epaiketa bat duela Malagan, bost egun geroago. Adierazi zein den erantzun zuzen bakarra:

a) Roberto epaiketara joan ahal izango da, zehapena ezarri duen elkargoaren esparruan bakarrik izango baita eraginkorra zehapena.

b) Roberto epaiketara joan ahal izango da, bestela bere bezeroa babesik gabe geratuko litzatekeelako.

c) Roberto epaiketara joan ahal izango da, zehapena eraginkorra izateko behar diren hamar egunak igaro ez direlako.

d) Roberto ezin izango da epaiketara joan.

7 - Mugape eta Planta Judizialaren abenduaren 28ko 38/1988 Legearen arabera, nola zehazten da barruti judizialen hiriburua?

a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erabaki baten bidez.

b) Gobernuaren errege-dekretu baten bidez, Justizia Ministerioak proposatuta.

c) Autonomia-erkidegoek zehazten dute, lege baten bidez.

d) Autonomia-erkidegoek zehazten dute, erregelamendu-arau baten bidez.

8 - Sofia abokatuak mezu elektronikoa bat bidali dio Ramon abokatuari, ezkontza-prozedura bat negoziatzeko ari dira-eta. Mezu horretan adierazi dio mezua ez dagoela sekretu profesionalaren pean. Azkenean, akordioa lortu ez dutenez, Sofiak demanda prestatzeko ekin dio, eta bere buruari galdetzen dio ea demandari erantsi ahal dion Ramoni bidalitako komunikazioaren kopia bat. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Sofiak komunikazioa aurkez dezake demandarekin batera.

b) Sofiak kasu honetan bakarrik aurkeztu ahal izango du komunikazioa demandarekin batera: Ramonek horretarako baimena ematen badu.

c) Sofiak ezin izango du komunikazioa demandarekin batera aurkeztu, aurkeztuz gero sekretu profesionala urratuko lukeelako.

d) Sofiak demandarekin batera aurkez dezake komunikazioa, baldin eta Abokatuen Elkargoak baimena ematen badio aldez aurretik.

9 - Zer prozeduraren bidez ezar dakioke abokatu bati abokatutzaren jarduna urtebetez eteteko diziplina-zehapena?

a) Diziplina-espeditzea izapidetu behar da, eta elkargoko dekanoak erabaki ahal izango du zehapena.

b) Inputatuaren entzunaldia edo deskargua besterik ez da behar, eta elkargoko dekanoak erabaki ahal izango du zehapena.

c) Diziplina-espedientea izapidetu behar da, eta Gobernu Batzarrak erabaki behar du zehapena. Erabaki hori bozketa sekretuan hartu beharko du Gobernu Batzarrak, kideen bi herenen adostasunez.

d) Diziplina-espedientea izapidetu behar da, eta Gobernu Batzarrak erabaki beharko du zehapena. Gehiengo soilez har daiteke erabakia, bozketa sekreturik gabe, elkargotik kanporatzeko zehapena ezartzeko baino ez baita beharrezkoa bozketa sekretua.

10 - Aurora Lanzaroteko Elkargoko abokatua da, eta, atxilotuei laguntzeko zerbitzua ematen ari dela, dei bat jaso du, Polizia Nazionalaren polizia-etxean atxilotuta dagoen bati laguntzeko. Eskubideak irakurri dizkiotenean, atxilotuak adierazi du Juan Albertoren laguntza eskatu zuela, konfiantzazko abokatua baitu. Poliziak adierazi dio epaileak auto bat eman duela, eta bertan erabaki duela guardiako abokatuak ematea laguntza. Zer egin behar du Aurorak, guardiako abokatua den aldetik?

a) Uko egin atxilotuari laguntzeari, abokatua askatasunez aukeratzeko eskubidea urratzen ari direlako.

b) Atxilotuari lagundu, eta ez deklaratzeko eskubidea balia dezala adierazi.

c) Juan Alberto lankideari deitu, atxiloteta-zentroan ahalik eta lasterren ager dadin, bere bezeroari laguntzeko.

d) Atxilotuari lagundu, beste edozein kasutan bezala, epaileek atxilotuari kendu ahal diotelako konfiantzazko abokatua izendatzeko eskubidea.

11 - Mirenek botoiak egiten ditu, eta Gorkari, mertzeria baten jabea baita, zenbateko bat erreklamatu nahi dio, hitzeko epaiketaren bidez; izan ere, Gorkak 800 euro zor dizkio Ireneri, ez diolako botoi-eskari bat ordaindu. Baieztapen hauetatik, zein da okerra?

a) Abokaturik gabe erreklamatu ahal izango du zenbateko hori.

b) Mirenek abokatu eta prokuradorearekin aurkeztu badu demanda, Gorkak ere erabaki dezake abokatua eta prokuradorea erabiltzea, eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzeko dakiola eska dezake.

c) Mirenek demanda aurkeztu badu abokatuaren eta prokuradorearen laguntzarik gabe, eta Gorkak auzitegiari adierazten badiu abokatuarekin eta prokuradorearekin agertu nahi duela prozesuan, horren berri emango zaio Mireni. Mirenek, orduan, erabaki dezake abokatu eta prokuradorearen zerbitzuak baliatzea, baina jada ezin izango du eskatu doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzea.

d) Abokatu eta prokuradorearen esku-hartzea nahitaezkoa ez bada ere, Miren profesional horien laguntzarekin aritu ahal izango da, demandan hala jasota uzten badu.

12 - Badajozko Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ukatu dio Mariari, eskubide hori eskatu baitzuen. Batzordearen iritziz, Mariaren baliabide ekonomikoek gailendu egiten dute eskubide hori aitortzeko legeko muga edo atalasea. Ebazpen horrekin ados ez dagoenez, Mariak aurkaratu egin nahi du. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Mariak aurkaratze-idazkia aurkeztu behar dio Badajozko Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariari, eta hark aurkaratze-idazkia bidaliko du, aurkaratutako ebazpenari dagokion espedientearekin eta ebazpenaren ziurtagiriarekin batera, Doako Laguntza Juridikoaren Batzorde Nagusira, organo horrek aurkaratzea ebatz dezan.

b) Mariak aurkaratze-idazkia aurkeztu behar dio Badajozko Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariari, zeinak aurkaratze-idazkia eta aurkaratutako ebazpenaren ziurtagiria igorriko baitzizkio epaitegi edo auzitegi eskudunari edo epaile dekanuari, banaketa egin dezan, prozedura hasi ez bada. Epaile edo auzitegiak ebatziko du aurkaratutako ebazpena mantendu ala ezeztatzea, eta ezin izango da errekurtsorik jarri erabaki judizialaren aurka.

c) Mariak zuzenean aurkeztu behar dio aurkaratze-idazki bat organo judizial eskudunari, eta epaileak erabakiz gero aurkaratutako ebazpenari eustea, Mariak errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Extremadurako Justizia Auzitegi Nagusian.

d) Mariak abokatua behar du aurkaratzea aurkeztu ahal izateko, baina horren zerbitzu-sariak Doako Laguntza Juridikoaren Batzorde Nagusiak ordainduko ditu, ukatzeko ebazpena ezeztatzen bada.

13 - Botere Judizialaren Lege Organikoaren arabera, zein arduratuko da akats judiziala deklaratzeko uziez, akats hori Auzitegi Goreneko sala bati egozten zaionean:

a) Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Sala.

b) Akatsa egozten zaion Auzitegi Goreneko Sala.

c) Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Sala.

d) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 61. artikuluan araututako sala bat, hauek osatua: Auzitegi Goreneko presidenteak, sala-presidenteek eta sala bakoitzeko magistratu antzinakoenak eta berrienak.

14 - Francisca abokatua da, eta Sevillako Abokatuen Elkargoak zehapen hau ezarri dio arau-hauste astuna egiteagatik: abokatutzaren jarduna hilabetez etetea. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Zehapen horren preskripzio-epea bi urtekoa da.
- b) Zehapen horren preskripzio-epea hiru urtekoa da.
- c) Zehapen horren preskripzio-epea urtebetekoa da.
- d) Zehapen horren preskripzio-epea sei hilabetekoa da.

15 - Alfredo jarduneko abokatua da. Demanda baten erantzuna aurkeztu du, eta, erantzun horretan, aurkako alderdiaren abokatuaz ari dela, honako hau adierazi du, hitzez hitz: "Ezgai hutsa da, eta haren ezjakintasun ausartak edonor lotsarazten du, etengabe". Erabil al dezake adierazpen hori?

- a) Bai. Bezeroaren defentsa-eskubideak justifikatzen du adierazpen hori.
- b) Ez. Adierazpen hori kontrako abokatuaren aurkako errespetu-falta da. Adierazpen hori ez da beharrezkoa bezeroaren defentsa-eskubidea gauzatzeko.
- c) Bai. Adierazpen askatasunak babesten du.
- d) Ez. Adierazpen horiek ahozko txostenetan bakarrik egin daitezke, baina ez idazki judizialetan.

16 - Estelak epaiketa arrunteko demanda bat aurkeztu du Franciscoren aurka, eta zor bat erreklamatu dio. Demanda ikusita, Franciscok uste du aurrera egiteko aukera handiak dituela, eta, beraz, abokatuari galdetu dio demandari amore eman bezala kostuak ezartzea ekidin dezakeen. Adierazi zer erantzun eman behar dion abokatuak Franciscori:

- a) Franciscok demandari amore ematen badio, bai demandari erantzun aurretik, bai ondoren, ezin izango zaizkio inoiz kostuak ezarri.
- b) Franciscok demandari amore ematen badio, bai demandari erantzun aurretik, bai ondoren, beti ezarriko zaizkio kostuak, Estelaren uziak oso-osorik onartuko dituztelako.
- c) Franciscok demandari erantzun aurretik amore ematen badu, ez zaizkio kostuak ezarriko, salbu eta auzitegiak, behar bezala arrazoituz, Franciscoren fede gaiztoa aintzat hartzen badu.
- d) Demandari erantzun aurretik amore ematen badu, kostuak ez zaizkio Franciscori ezarriko, nahiz eta Estelak, demandaren aurretik, notario bidezko errekerimendua egin, behar bezala justifikatua.

17 - Adierazi zein den erantzun zuzena postulazioaren arloan, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen arabera:

- a) Adopzio-espeditentean ez da nahitaezkoa abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea.
- b) Nahitaezkoa da abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea absentsia- eta heriotza-deklarazioari buruzko espeditentetan.
- c) Adingabe baten legezko ordezkariak baimen judiziala eskatzen duenean adingabearen ondasun edo eskubideen gaineko xedatze- edo kargatze-egintzak baliozkoak izateko, espediente horietan inoiz ez da nahitaezkoa abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea.
- d) Batzar orokorretarako deialdia eskatzeko espeditentean ez da nahitaezkoa abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea.

18 - Erantzukizun mugatuko X sozietatea kaudimengabezia-egoeran dago, eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu dakiola eskatu du, hartzekodunen konkurtsoa eskatu ahal izateko. Adierazi zein den erantzun zuzen bakarra:

- a) Doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ezin da inola ere aitortu konkurtso-prozeduretan.
- b) Doako laguntza juridikoa izateko eskubidea nahitaezko konkurtsoan bakarrik aitortu dakioko.
- c) Baliabide ekonomikorik ez duenez, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu beharko zaio.
- d) Baliabide ekonomikorik ez badu ere, ez du doako laguntza juridikoa izateko eskubiderik.

19 - Behean adierazten direnak egin ditu Estherrek, abokatu gisa. Jokabide horietako zeinek ez dio erantzukizun penalik ekarriko?

- a) Estherrek aholkularitza eman zion Javierri, dibortziatua bera, Javierrek Irene emazteari ordaindu behar zion konpentsazio-pentsioaren beherapena lortzeko legezko aukerei buruz. Gero, Javierren baimenik gabe, Ireneren abokatu aritu zen Esther, eta aurka egin zion Javierrek eskatutako beherapenari, dibortzio-neurriak aldatzeko prozedurara jo baitzuen Javierrek azkenean.
- b) Estherrek, kaleratze-prozedura batean jardunez, zenbait lekuko aurkeztu zituen epaiketan, egia deklaratu ez zutela jakinda. Lekuko horiek fikziozko egitate-kontakizuna azaldu zuten, Estherrek berak asmatua bere bezeroaren alde.
- c) Behar bezala zitatuta egon arren, Esther ez zen agertu bere defentsapeko ikertuak instrukzioko epaitegian egin behar zuen deklaraziora, eta, ondorioz, deklarazio hori bertan behera utzi behar izan zuten.
- d) Esku hartzen ari zen prozedura batean jarduketan sekretua deklaratu egon arren, Estherrek jarduketan edukiaren berri eman zuten.

20 - Antonio abokatua da, eta bezero baten funts-hornidura jaso zuen, eta, bezeroaren baimenarekin, haren defentsan sortutako zenbait ordejarri ordaintzeko erabili zuen. Behin auzia amaituta, abokatua eta bezeroa ez datoz bat ordaintzeko dauden zerbitzu-sariei buruz. Abokatuaren ustez, ordaindu gabekoak gehiago dira funts-horniduratik geratzen dena baino; aldiz, bezeroak uste du, auziaren emaitza negatiboa ikusita, ez duela ezer zor, eta horniduraren gainerako funtsak itzultzeko eskatzen du, desadostasuna konpondu arte. Zein da erantzun zuzena?

a) Abokatuak ezin ditu funtsak atxiki, nahiz eta arrazoia duen esaten duenean zerbitzu-sari profesionalak zor zaizkiola; izan ere, debekatuta daude konpentsazioa eta autolikidazioa.

b) Abokatuak funtsak atxiki ditzake, baliatu edo erabili gabe eta kobrantza bermatzeko helburu bakarrarekin, harik eta zerbitzu-sariei buruzko desadostasuna ebatzi arte.

c) Abokatuak hau bakarrik atxiki dezake: bere zerbitzu-sarien zenbatekoa gainditzen ez duen funtsen zatia.

d) Kreditu mugaeguneratuak, likidoak eta galdagarriak direnez, ordainketak konpentsatzeko legezko mekanismoa aplika dezake abokatuak, eta soberakina itzuli behar du.

21 - Ministerio Fiskalak babes-errekurtso konstituzionalean esku hartzeko dituen aukerei dagokienez, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Ministerio Fiskalak babes-prozesu guztietan esku hartuko du.

b) Ministerio Fiskalaren esku-hartzea kasu honetan soilik izango da nahitaezkoa: eskubide eta askatasunen urraketek buruzko babes-prozesuan, baldin eta urraketok organo judicial baten egintza edo ez-egite batetik badatoz eta aurretiazko prozesu judizialean alderdi izan bada.

c) Ez dago legitimatuta babes-errekurtsoa jartzeko Gorteek emandako lege-baliorik gabeko erabaki edo egintzek eragindako eskubide- edo askatasun-urraketen kasuan.

d) Babes-errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago Gorteek emandako lege-baliorik gabeko erabaki edo egintzek eragindako eskubideen edo askatasunen urraketen kasuan, baina ez Gobernuaren jardunak eragin ditzakeen eskubide- eta askatasun-urraketen kasuan.

22 - Felipek salaketa jarri du Olaiaren aurka, eta salaketa hori delitu arinen epaiketarako prozeduraren arabera izapidetzen ari da. Prozedura hori arautzen duten arauen arabera, adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Felipe eta Olaiari zitazioak egiten zaizkienean, zitazio horietan komunikatuko zaie abokatuen laguntza izan dezaketela, nahi izanez gero; izan ere, delitu arinengatiko epaiketaren eremuan ez dago salatuari edo ikertuari abokatu-laguntza nahitaez ezartzen dion kasurik.

b) Zigor-prozedura baten aurrean gaudenez, Prozedura Kriminalaren Legeak ezartzen du Olaiak nahitaez izan behar duela abokatuaren laguntza beti, bere defentsa-eskubidea babesteko.

c) Olaia delitu arin batengatik salatzen badute, eta delitu horri dagokion zigorra isuna bada eta isun horren gehieneko muga gutxienez sei hilabetekoa bada, Olaiak abokatua eta prokuradorea izan beharko ditu, zigor-arloko prozeduraren defentsa- eta ordezkapen-arau orokorren arabera, delitu arin hori epaitu ahal izateko.

d) Olaiak kasu honetan bakarrik beharko ditu abokatua eta prokuradorea: bizilekua ez den eta beste batena den ondasun higiezin, etxebizitza edo eraikinaren usurpazio-delitu arin batengatik salatzen badute.

23 - Kasu hauetako zeinetan ordaindu behar da jurisdikzio-ahala baliatzeagatik tasa?

a) Doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortua ez duen ezkontideak apelazio-errekurtsoa jartzen duenean dibortzio-demanda baten aurka.

b) Zordunak, pertsona juridikoa izaki, borondatezko konkurtsoa eskatzen duenean.

c) Erantzukizun mugatuko sozietate batek prozedura monitorioaren hasierako eskaera aurkezten duenean 3.000 euroko munta erreklamatzeko.

d) Doako laguntza juridikoa izateko eskubiderik ez duen pertsona fisiko batek epaiketa arrunteko demanda aurkezten duenean 6.000 eurotik gorako zenbatekoa erreklamatzeko.

24 - Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi batean, prozedura penal bat izapidetzen ari dira Federicoren aurka. Federico ikertua da haren emazte Elenak salatutako tratu txarren delitu batengatik. Delitu horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezar dakioke. Era berean, alderdien arteko dibortzio-prozedura izapidetzen ari dira. Prozedura horretan, alderdien jarrerak oso urrun daude bata bestetik, bakoitzaren uzi ekonomikoak eta seme-alabekiko harremanak dagokienez. Posible al da bitartekaritza gai horietan?

a) Bitartekaritza posible izango da, baldin eta zigor-arloko prozeduran bi urteko edo gehiagoko espetxe-zigorra izan dezakeen delitu bat egotzi ez bada; beraz, delituari dagokion zigorra kontuan hartuta, bitartekaritza egin ahal izango da.

b) Ezin da bitartekaritzarik egin, lege debekatuta dagoelako.

c) Bai. Bitartekaritza borondatezkoa denez, prozedura mota guztietan erabil daiteke.

d) Kasu honetan bakarrik izango da posible bitartekaritza: Federicori egotzitako delitua delitu arina bada.

25 - Monique Frantziako herritarra da eta Parisen bizi da. Jose Luis senarra hil zaio, eta Moniquek eta Jose Luis defuntuaren seme-alabek (Amanda eta Pedro) liskarra dute hildakoaren jarauntsia edo herentzia dela eta. Amandak eta Pedrok Espainiako nazionalitatea dute, baina Alemanian bizi dira. Jose Luisek hau bakarrik utzi du oinordetzan: Granadan dagoen finka bat. Jose Luis espainiarra zen hil zenean, baina Parisen zuen ohiko bizilekua. Adierazi zein den erantzun zuzena Espainiako auzitegien eskumenari dagokionez, baldin eta Moniquek erabakitzen badu Jose Luisen seme-alabak Espainian demandatzea:

- a) Esanbidezko sumisioaren ondorioz bakarrik arduratu ahal izango dira Espainiako auzitegiak.
- b) Espainiako auzitegiak ezin dira gai honetaz arduratu; izan ere, demandatzailea eta demandatuak Espainiatik kanpo bizi direnez, kausatzailearen azken ohiko bizilekua da Espainiako auzitegiei eskumena esleitzen diezaiekeen irizpide bakarra.
- c) **Moniquek Espainiako auzitegiara jo dezake, ondasunak Espainian daudelako eta Jose Luis espainiarra zelako hil zenean.**
- d) Moniquek ezin ditu Jose Luisen seme-alabak Espainian demandatu; horretarako, espainiarra izan beharko luke, edo ohiko bizilekua Espainian eduki, edo, nolanahi ere, Espainian bizi demanda aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.

26 - Ignacioren tutorea da Pedro. Litekeena da Ignacio kostu handiko auzi batean sartzea, eta Pedrok uste du zentzuzkoa izan litekeela transakzio bat egitea, auzi hori saihesteko Hori dela eta, Pedrok bere abokatuari galdetu dio ea, Ignacioren izenean, Ignacioren eskubideei eragiten dien transakziorik egin dezakeen. Zer erantzun behar dio abokatuak?

- a) Transakzioaren xede den auziaren munta 6.000 euro baino handiagoa ez bada, ez dela beharrezkoa izango aurretiaz baimen judiziala izatea transakzioa egiteko.
- b) **Baimen judiziala lortu beharko duela, Ignacioren intereseko gaiei buruzko transakzioa egin ahal izateko.**
- c) Tutoretzapekoa interesatuta dagoen gaiei buruzko transakzioa egin dezakeela, epailearen baimenik gabe, eta nahikoa dela transakzioaren berri ematea gero, urteroko kontu-ematean.
- d) Legez ezinezkoa dela, eta ezin dela inola ere baimendu, tutoreak tutoretzapekoaren intereseko gaietan transakzioa egiteko aukera izatea.

27 - Julen abokatua da, eta adiskidetasun-harremana du Marcelarekin. Azken horrek demanda bat jarri nahi du, kalte-ordaina eskatzeko, ondorio edo sekuela larri iraunkorrak eragin dizkion trafiko-istripu batean izandako kalteengatik. Marcelak doako laguntza juridikoa eskatu du, eta onartu egin zaio. Ados dago izendatutako ofiziozko prokuradorearekin, baina nahiago du prozesu horretan Julen lagunak esku hartzea, ofizioz izendatutako abokatuaren ordeiz. Marcelak lortu al dezake Julenek prozeduran parte hartzea eta ofizioz izendatutako prokuradorea gorde diezaiotela?

- a) Ez. Doako laguntza juridikoa eskatu duenez gero, izendatutako ofiziozko abokatua onartzea besterik ez zaio geratzen Marcelari.
- b) Ez. Inola ere ezin dute aldi berean jardun ofiziozko prokuradoreak eta askatasunez hautatutako abokatu batek. Beraz, Marcelak nahi badu Julen abokatu aritzea, nahitaez egin beharko die uko ofizioz izendatutako abokatuari eta prokuradoreari, biei.
- c) Bai. Demandaren izaera dela eta, Marcelak eutsi ahal izango dio ofiziozko prokuradoreari, eta libreki izendatu ahal izango du aukeratutako abokatua, baldin eta abokatu horrekin hitzartzen badu zerbitzu-sari hau emango diola: elkargoaren baremo orientatzaileek ezarritakoaren erdia baino gutxiago.
- d) **Bai, baina horretarako nahitaezkoa da Julenek bere ordainsariak jasotzeari uko egitea, idatziz, Clararen aurrean eta inskribatuta dagoen elkargoaren aurrean.**

28 - Madrilgo Lehen Auzialdiko 43 zenbakiko Epaitegia prozedura arrunt batez arduratzen ari da, eta, auziaren xedeari buruz ebazteko, beharrezkotzat jotzen du beste auzigai bati buruz erabakitzea, zeina, aldi berean, lehen auzialdiko beste epaitegi batean ebazteko dagoen beste prozesu baten xede nagusia baita. Oraingo honetan, autoak ezin dira metatu. Prejudizialitate zibila dagoela onartuz gero, zer ondorio izan dezake Madrilgo Lehen Auzialdiko 43 zenbakiko Epaitegian ebazteko dagoen prozesuan?

- a) Epaitegia zuzenean arduratu ahal izango da beste epaitegian ebazteko dauden jarduketaz, eta batera ebatzi ahal izango ditu, gauza epaituaren ondoreekin, bi prozesuetan.
- b) Epaitegiak aurrera egin beharko du prozesuarekin, eta epaia besterik falta ez zaionean eten ahal izango du, orduan bakarrik.
- c) Epaitegiak prozesua largetsiko du, auzibitarrea edo litispendentzia dela eta.
- d) **Epaitegiak aribideko jardunaren etendura agin dezake, jardun hori dagoen egoeran dagoelarik, arazo prejudiziala xede duen prozesua bukatu arte.**

29 - Xoel, ezkontide demandatua, auzi-iheslari deklaratu zuten. Geroago, dibortzio-epaiketa egin zen, baina Xoel ez zen agertu. Ikustaldiaren ondoren, eta jarduketak berrikustean, Sabela epailea ohartu zen demanda jakinarazteko ahaleginak ez zuela emaitzarik izan, eta posta-zerbitzuak itzuli egin zuela, “ezezaguna” izateagatik. Zer egin dezake epaileak?

- a) Jarduketan egoera kontuan hartuta, epaia eman baino ezin du egin, eta Xoeli egindako jakinarazpenean ohartarazi formakatsagatik errekurtsioa jartzeko eskubidea duela.

b) Defentsa-gabezia eragiten duen akats prozesal bat gertatu denez, ofizioz, epaia eman aurretik, auzi-ihesaren deklarazioaren eta ikustaldiaren deuseztasuna deklaratu ahal izango du, alderdiei entzun ondoren.

c) Jarduketan deuseztasuna deklaratu dezake, baina alderdi demandatzaileak, demandatuak edo Ministerio Fiskalak hala eskatzen badute bakarrik.

d) Ezin izango du jarduketan deuseztasuna ofizioz deklaratu, ez dagoelako auzitegiari eragiten dion jurisdikzio edo eskumen objektibo zein funtzional faltarik, ezta indarkeria edo larderiarik ere.

30 - Burgosko Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiara joan da Juan, bere bezeroari laguntzera, gaur egungo bikotekidearen aurrean eskatutako kautela-neurria ebazteko agerraldian. Iristean, ohartu da ezagutzen duela Angeles, ikertuari laguntzen ari zaion abokatua, eta, jakin duenez, hilabete lehenago ekin zion diziiplina-zehapen bat betetzeari: sei hilabete jardun-etendura, Valladolideko Abokatuen Elkargoak ezarria. Jarduketei ekin aurretik, Juanek bere kidearengana jo du, eta, isil-gordean, esan dio ezin duela jardun, jardutea eragozten dion zehapen bat betetzen ari delako. Angelesek ez dio jaramonik egin ohartarazpenari, eta ikertuaren abokatu gisa agertu da agerraldian. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Lanbidean legez dihardu kasu honetan; izan ere, jarduna eten diote abokatuari, baina ez jarduketa egiten ari diren epaitegiari dagokion elkargoak.

b) Lanbidean legez dihardu kasu honetan; izan ere, jarduna eten diote abokatuari, baina kolegiatuta dago, eta, beraz, Juanek ez du ezer egiteko betebeharririk.

c) Lanbidean legez kanpo dihardu kasu honetan, jarduna etenda duelako; beraz, Juanek, horren berri izan duen elkargokidea denez, elkargoan salatzeke eginbeharra du.

d) Lanbidean legez kanpo dihardu kasu honetan, jarduna etenda duelako; beraz, Juanek, horren berri izan duen elkargokidea denez, ohartarazpen bat egiteko betebeharra baino ez du, eta ohartarazpen horrekin jada bukatu du, bestelako inolako eginbeharrik gabe.

31 - Zein organo judizial dagokio espetxe-agintaritzen diziiplina-ahalaren kontrol jurisdikzionala?

a) Administrazioarekiko auzien epaitegiei.

b) Espetxe-zaintzako epaitegiei.

c) Zigor-arloko epaitegiei.

d) Administrazioarekiko auzien epaitegi zentrali.

32 - Auzilari batek lau demandaturen aurka sustatutako deklarazio-prozesu batean, auzitegiak auzi-jartzaileari ezarri dizkio kostuak, haren ausarkeria deklarata. Erantzun hauetatik, zein da zuzena?

a) Auzi-jartzaileak ordaindu beharko ditu demandatu bakoitzak sortutako kostuen laurdena.

b) Auzi-jartzaileak ordaindu beharko ditu demandatu bakoitzak sortutako kostu guztiak.

c) Auzi-jartzailea behartuta egongo da soilik abokatuak eta tarifa edo arantzelaren menpe dauden gainerako profesionalei dagokien zatitik gehienez ere herena ordaintzera gutztira, auzilarietarako bakoitzeko.

d) Auzi-jartzaileak gehienez ere prozesuaren zenbatekoaren herena ordaindu beharko die demandatu guztiei.

33 - Ezkontza-prozedura bateko alderdiek prozeduran bertan alegatu dituzte dibortzioari, familia-etxebizitzari, konpentsazio-pentsioari, seme-alaben zaintza eta bisitei eta seme-alaben mantenu-pentsioari buruzko uziak. Antoniok, magistratuak, alderdi horiei guztiei buruz ebatzi du epaian, familia-etxebizitzari buruz izan ezik, ahaztu egin zaio-eta horren inguruko pronuntziamendua ematea. Bestalde, Antoniok argi eta garbi arrazoitu du zuzenbideko oinarrietan pensioak 300 eurokoa izan behar duela seme edo alaba bakoitzeko, baina epaitzan nahastu egin da, eta 50 euroko pensioa ezarri du. Ondorengo erantzunetatik zein da okerra, magistratuak epaia osatu, zuzendu edo ongitzeko dituen aukerak kontuan izanda?

a) Noiznahi zuzendu ahal izango da epaitzan dagoen akatsa, hau da, pensioa "50 eurokoa" dela adierazten duena.

b) Antoniok ezetsi egingo du konpentsazio-pentsioa zuzentzeko egin zaion eskaera, baldin eta, alderdiaren iritziz, magistratuak haren gaitasun ekonomikoaren balorazio okerra egin badu, eskaera horrek gaitasun egiten dituelako epaiak argitzeko, zuzentzeko, ongitzeko edo osatzeko aukerak.

c) Magistratuak, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta, auto bidez osa dezake familia-etxebizitzari buruzko pronuntziamendurik eza.

d) Magistratuak epaia argitu ahal izango du, alderdiek hala eskatzen badiote, eta argitze-eskaera ebazten duen autoa errekurritu ahal izango zaio magistratuari berari.

34 - Josu Gasteizko Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiaren egoitza agertu da, prozeduran ikertutako bere bezeroaren aurka izapidetzen ari diren aurretiazko eginbideetan deitutako bi lekukok egingo dituzten deklarazioetara bertaratzeko. Tomasek, akusazio partikularrean diharduen abokatuak, Epaitegiari jakinarazi dio 20 minutu beranduago iritsiko dela, autobidean gertatutako istripu baten ondorioz. Nola jokatu behar du Josuk?

a) Josu ez dago behartuta Tomasi itxaronaldirik ematera, Tomas instrukzioko epaitegiaren egoitza dagoen herritik beste herri batera mugitzen ari delako.

b) Josu behartuta dago Tomasi zentzuzko itxaronaldia ematera lekukoen deklarazioekin hasi aurretik, baldin eta epaitegiak, hala badagokio, itxaronaldia baimentzen badu aurkariaren defentsa-gabeziarik gerta ez dadin.

c) Edozein kasutan, Josu behartuta dago Tomasi gehienez ere 10 minutuko itxaronaldia ematera lekukoen deklarazioekin hasi aurretik, epaitegiak horretarako baimena ematen ez badu ere.

d) Josu ez dago behartuta Tomasi itxaronaldirik ematera, lekuko batzuen deklarazioak baitira eta ez ikertuarenak.

35 - Ana Maria hil ondoren, pertsona batek hari buruzko hainbat baieztapen egin ditu telebista-saio batean. Baieztapen horiek kaltegarritzat jo daitezke hildakoaren ohorerako, intimitaterako eta irudirako. Nork egikaritu ditzake Ana Mariaren eskubide horien babes zibileko akzioak?

a) Inork ez, hildako baten ohorea, intimitatea edo irudia babesteko akzioak egikaritzetik ez dagoelako.

b) Ana Mariaren ondorengoek bakarrik eska dezakete Ana Mariaren ohorea, intimitatea edo irudia babesteko babes judizial zibila.

c) Ana Mariaren ohorea, intimitatea edo irudia babesteko akzio zibilak egikaritzea Ana Mariak bere testamentuan horretarako izendatu duenari dagokio. Izendapenik ez badago edo izendatutako pertsona hil bada, babes eskatzeko legitimazioa izango dute Ana Mariaren ezkontideak, ondorengoak, aurrekoak eta anai-arrebek, baldin eta Ana Maria hildakoan bizi baziren; eta, horietako inor ez badago, Ministerio Fiskalari egokituko zaio babes-akzioak egikaritzea.

d) Ana Mariaren ezkontideak, ondorengoak, aurrekoak eta anai-arrebek baino ez dute legitimazioa.

36 - Arbitrajepean jarritako gai batean arbitraje-laudoa eman ondoren, Gloria ez dago ados, eta, beraz, bere abokatu Martari esan dio arbitraje-laudoa deuseztatzeko eska dezala. Zein organo judizialetan planteatu behar du arbitraje-laudoa deuseztatzea?

a) Arbitraje-laudoa eman den tokiko merkataritza-arloko epaitegian.

b) Arbitraje-laudoa eman den tokiko lehen auzialdiko epaitegian.

c) Arbitraje-laudoa eman den autonomia-erkidegoko justizia-auzitegi nagusiko arlo zibileko eta zigor-arloko salan.

d) Arbitraje-laudoa eman den tokiko probintzia-auzitegian.

37 - Joaquimek auzitan aritu nahi du taberna baten jabe den bizilagunaren aurka, tabernako zaratek osasun-arazo ugari eragin baitzikiote, eta, ondorioz, kalte-ordaina jaso nahi du. Doako laguntza juridikoa eskatu du, eskubidea aitortu zaio, eta abokatua eta prokuradorea izendatu dizkiote. Albertok, izendatutako abokatuak, ez daki uzi hori sostengatzeko modukoa den ala ez, Joaquimek ez baitio aurkeztu nahi alegatutako osasun-arazoak egiaztatzen dituen dokumentaziorik. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Albertok, izendatu zutenetik, epe bat dauka Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari uziaren sostengaezintasuna komunikatzeko, eta ez da aurreikusten Albertok epe hori eteteko eskatzeko moduko arrazoirik.

b) Albertok, legezko epean, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari komunikatu beharko dio auzia sostengaezintzat jotzen duela edo, bestela, epe hori eteteko eskatu beharko du, uzia ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ez edukitzeagatik; izan ere, hala egiten ez badu, bere gain hartu beharko du defentsa.

c) Albertok uziaren sostengaezintasuna formulatu ahal izateko epea eteteko eskatzen badu, hura ebaluatu ahal izateko dokumentaziorik ez dagoelako, baina Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak uste badu Albertok zeukan dokumentazioa nahikoa dela uziaren bideragarritasuna aztertzeko, orduan bere gain hartu beharko du defentsa, sostengaezintasuna alegatzeko aukerarik gabe.

d) Albertok uziaren sostengaezintasuna formulatu ahal izateko epea eteteko eskatzen badu, hura ebaluatu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazioa falta dela argudiatuz, orduan Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak interesdunari eskatuko dio dokumentazioa aurkezteko, eta interesdunak dokumentazioa legezko epean aurkeztzen ez badu, uziaren bideragarritasunari buruzko irizpena eskatuko zaio abokatuen elkargoari.

38 - Pablo abokatua da, eta epaiketaz kanpoko akordioa lortu du aseguru-etxe batekin. Akordio horren bidez, aseguru-etxeak 30.000 euroko kalte-ordaina emango dio Alberto bezeroari, trafiko-istripu batean jasandako kalteengatik. Pablok konpainiari adierazi dio bulegoaren titulartasuneko banku-kontu batean egiteko ordainketa; kontu horretatik bideratzen dira, hain zuzen, bere lanbide-jarduerarekin lotutako diru-sarrera eta gastu guztiak. Kaltearen ordaina jaso ondoren, Pablok bere zerbitzu-sari profesionalak kendu ditu, Albertok jasandako kalteak egiaztatzeko kontratatutako adituaren minuta ordaindu du, eta, geratzen den zenbatekoarekin, Albertori transferentzia egiteko agindu du. Mezu elektronikoa bat bidali dio hari, egindako eragiketa guztiak azalduz eta zehaztuz. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Pablok zuzen jardun du, eragiketa horietarako baimen tazitua dagoela jo behar baita.

b) Pablok ezin du bulegoko kontua erabili, ezin baititu bezeroaren funtsak bere funtsekin edo bulegoko funtsekin nahastu. Horrez gain, ezin du ordainketarik agindu, lege-xedapenik, epailearen agindurik edo bezeroaren baimenik izan ezean, ezta bere zerbitzu-sariak kendu ere, baimen espresurik eta idatzirik izan ezean.

c) Pablok zuzen jardun du, bulegoko jardura profesionalari lotutako kontu bat erabili duelako eta ez kontu indibidual bat, eta, nahiz eta Albertok ez dion berariazko baimenik eman, egindako eragiketen azalpen zehatz osoa eman dio Pablok ondoren.

d) Pablok bezero batentzako edo hirugarrenentzako diru-kopuruak jaso ditzake eta funts horiekin ordainketak egin edo transferentziak agindu, soilik baldin eta epailearen agindua badago.

39 - Fermin abokatua da eta diziplina-espedientea du arau-hauste larriagatik; beraz, gehienez ere hiru hilabetez abokatutza-jarduna eteteko zehapena ezarri ahal izango zaio, ez besterik. Zer gertatuko da Fermin abokatuen elkargoan baja ematen badu, diziplinazko espedientea amaitu aurretik?

a) Elkargoan baja emateak ez dakar altan egondako denboran bereganatutako diziplina-erantzukizuna azkentzea; hortaz, diziplina-prozedura amaitu egingo da eta zehapena geldieran utziko da, Fermin berriz elkargoan sartzen bada orduan betetzeko.

b) Ferminen borondatez baja ematen badu hiru hilabetez, hori denez zehapenaren gehieneko epea, elkargoan berriz ere alta hartzen duenean alegatu ahal izango du aldi hori konpentsatzeko eta espedientea zehapenik gabe artxibatzeko.

c) Diziplina-erantzukizuna azkendu egingo da, azkentzeko arrazoi direlako zehapena betetzea, elkargokidea hiltzea, elkargoan baja ematea eta falta edo zehapena preskribatzea.

d) Diziplina-prozedura dagoen egoeran geldituko da objekturik ezagatik, eta, sei hilabete igarotzean, espedientea iraungi egingo da.

40 - Mercedesek adimen-desgaitasuna du, tratu txar fisikoak jasaten ari da, eta egoera hori prozedura judizial batean ikertzen ari dira. Badu prozedura horretan doako laguntza izateko eskubiderik?

a) Mercedesek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea du eta berehala emango zaio, nahiz eta bere diru-sarrera gordinak ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi baino gehiago izan.

b) Mercedesek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea du, baina auzitan aritzeko nahikoa baliabiderik ez badu soilik.

c) Mercedesek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea izan dezake, baina onura hori galdu egingo du absoluzio-epaia edo behin betiko edo behin-behineko largespena irmo bihurtzen direnean, delitu-egitateak ez egiaztatzeagatik. Horrek esan nahi du ordura arte doan baliatutako prestazioen kostua ordaindu beharko duela Mercedesek, ondare nahikoa badu.

d) Mercedesek legezko ordezkari bat izendatuta badu eta ordezkari horrek diru-sarrera nahikoak baditu, ezin izango zaio Mercedesi doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu.

41 - Anxok, alderdi demandatua den prozedura judizial batean, bere abokatu Adriani eskatu dio bi pertsonaren lekuko-deklarazioa eska dezala, epaitutako egitateak argitu ditzaketelakoan. Adrianek haien deklarazioa eskatu du, eta epaitegiak onartu egin du. Baina, prozeduran zehar, uste du hobe dela pertsona horiek ez deklaratzeko, eta, azkenean, uko egin die haien lekukotzei. Zuzen jokatu al du Adrianek?

a) Ez du zuzen jokatu, abokatuaren eta bezeroaren arteko harremana elkarrekiko konfiantzan oinarritzen baita.

b) Ez du zuzen jokatu, abokatuak arreta eta ardura handienez aholkatu eta defendatu behar baitu bezeroa.

c) Ez du zuzen jokatu; izan ere, bezeroaren eskaeraren aurrean, abokatuak bertan behera utzi behar zuen haren defentsa prozeduran, eskaera horrek bere independentzian eta askatasunean eskua sartzea dakarrelako.

d) Zuzen jokatu du, abokatuak eskubidea baitu agindutako auzigaia defendatzeko modua askatasun osoz erabakitzeko eta egikaritzeko, bezeroaren interesa ahalik eta hobekien defendatzeko aldera.

42 - Oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko sinatutako hitzarmenaren arabera, Erroman egin baitzuten 1950eko azaroaren 4an, ondorengo baieztapenetatik, zein da egiazkoa Giza Eskubideen Europako Auzitegian demanda aurkezteko legitimazioari buruz?

a) Eskubideak urratu dizkieten pertsona fisiko indibidualek baino ez dute legitimazioa.

- b) Hitzarmena sinatu duen estatu batek ezin izango du hitzarmena sinatu duen beste estatu bat Auzitegian demandatu hitzarmenean eta protokoloetan xedatutakoa ez betetzeagatik; izan ere, kasu horretan Europako Kontseiluko Ministroen Batzordean negoziatzea beste aukerarik ez dago.
- c) Gobernuz kanpoko erakundeei espresuki ukatzen zaie Auzitegian demanda jartzeko aukera.
- d) Urraketa baten biktimatzat jotzen diren pertsona fisikoek, gobernuz kanpoko erakundeek edo partikular-taldeek demanda aurkez dezakete Auzitegian. Hitzarmena sinatu duten estatuek ere demanda aurkez dezakete beste estatu sinatzaile batzuei egozteko moduko irizten dieten ez-betetzeengatik.

43 - Mariok dibortzio-demanda bat jarri nahi du Susana emaztearen aurka; seme bat du harekin. Marioren diru-sarrerek ez dute ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi gainditzen, eta, horrez gain, ez du ondare-ondasunik Mariok. Bere emaztearen urteko diru-sarrerak, aldiz, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako sei dira, eta, gainera, ondare higiezin handia du emazteak. Posible al da Mariori doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzea, dibortzioa eska dezan?

- a) Ez. Baliabideen eta diru-sarreraren zenbaketa familia-unitatearen arabera egin behar da, eta horiek nabarmen gainditzen dituzte doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzeko lege ezarrita dauden errenta-mugak eta ondare-ondasunen mugak.
- b) Bai, auzian interes kontrajarriak daudelako. Beraz, baliabide ekonomikoak indibidualki baloratuko dira.
- c) Ez, horretarako beharrezkoa baita kategoria bereziko familia ugariaren izaera aitortua duen familia-unitate bat osatzea.
- d) Bai, baina soilik Mariok desgaitasunen bat badu edo desgaitasuna duen pertsonaren bat ardurapean badu.

44 - Paloma abokatua da, eta bere bezero Joaquinen ordezkari gisa dihardu herriko udaletxean, hirigintza-espediente batean. Kontrako administrazio-ebazpen bat jaso du, eta, gora jotzeko errekurtsua aurkezteko epea amaitzeko hamar egun falta direla, Joaquini modu fede-emailean jakinarazi dio uko egin diola auzigaia eramateari, bien artean sortutako desadostasun bateraezinengatik. Uko egitearen jakinarazpenean, Palomak Joaquinen esku jarri du gaiari buruzko informazio garrantzitsu guztia, bere zerbitzu-sarien zenbatekoa jakinarazi dio, errekurtsua jartzeko epea zein den ohartarazi, eta adierazi dio abokatu berriak edo Joaquinek berak jakinarazi beharko diotela udalari Palomak uko egin duela, baita jakinarazpenetarako helbide berria zein den ere. Epea bukatzeko bost egun falta direla, Joaquinek Palomari adierazi dio oraindik ez duela aurkitu aholkularitza berririk, eta, behintzat, gora jotzeko errekurtsua idazteko eskatu dio. Zein izango litzateke jarduketa egokia?

- a) Palomak udalari ere ukoaren berri eman behar zion modu fede-emailean, eta Joaquinen defentsa-gabezia eta eskubide-galera ez sortzeko behar diren egintzak egiteko betebeharra du; beraz, gora jotzeko errekurtsua idatzi behar du, auzigaitik erabat baztertu aurretik.
- b) Palomak Joaquinen defentsa-gabezia eta eskubide-galera saihesteko beharrezkoak diren egintzak egiteko betebeharra du; beraz, gora jotzeko errekurtsua idatzi behar du, eta ezin dio uko egin auzigaiari errekurtsu hori ebatzi arte, eta, ebazpena berriz ere kontrakoa bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri arte.
- c) Palomak udalari ere eman behar zion ukoaren berri, modu fede-emailean; kasu horretan, Joaquini buruzko betebeharrak profesional guztietatik aske geratuko zen, eta ez zuen gora jotzeko errekurtsua idazteko betebeharririk izango.
- d) Paloma Joaquinekiko betebeharrak profesional guztietatik libre geratu zen ukoaren berri modu fede-emailean jakinarazita; jakinarazpen hori Joaquinek aholkularitza berria aurkituko zuela ziurtatzeko behar besteko denborarekin egin zuen.

45 - Manuel (Madrilen du egoitza) Segoviako landa-finka baten jabea da bere osaba Pedrokekin batera (Avilan du egoitza). Manuelek eta Pedrok ezkontza-ekitaldietako enpresa bati alokatu zioten landa-finka hori. Manuelek ez du inoiz finkaren administrazioaren ardurarik hartu, Pedroken esku utzi izan du beti. Baina aspalditik zalantzan da ea hark ematen dizkion zenbatekoak bat datozen gauza erkidean parte hartzeagatik legozkiokeen irabaziekin, Pedrok orain uko egiten baitio zenbateko horiek justifikatzeari. Demanda aurkeztu aurretik, Manuelek epaileari eskatu nahi dio Pedrok erakuts dezala finkaren diru-sarreraren eta gastuen dokumentazioa. Zein epaitegik du lurralde-eskumena Manuelen eskaerari buruz ebazteko?

- a) Madrilgo epaitegi bat da eskuduna, eskatzailearen egoitza delako; eskatzaileari eragotzi egin zaio gauza erkidearen administrazioari buruzko informazio-eskubidea.
- b) Avilako epaitegi bat da eskuduna, eskatutako dokumentazioa erakutsi behar duen pertsonaren egoitza delako.
- c) Segoviako epaitegi bat da eskuduna, finka han dagoelako.
- d) Avilakoa eta Segoviakoa dira eskudunak, eta eskatzaileak aukeratu ahal izango du zeini eskatu atariko eginbideak.

46 - Pascual bere abokatuen elkargoaren ofiziozko txandan sartu berri da, eta dibortzio-prozedura bat Mariaren izenean izapidetzeko izendapena jaso du, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu baitzaio hari. Zer egingo du?

- a) Defentsan jardun beharko du dibortzio-prozeduran, lehen auzialdian.
- b) Defentsan jardun beharko du dibortzio-prozeduran, lehen auzialdian, eta, halakorik balego, behin-behineko neurrietan.

c) Defentsan jardun beharko du dibortzio-prozeduran, lehen auzialdian, eta, halakorik balego, behin-behineko neurrietan, baita auzialdiari amaiera ematen dion epaiaren aurkako errekurtsioan ere, baina inoiz ez du esku hartuko epaiaren betearazpenean.

d) Defentsa egikaritu beharko du dibortzio-prozeduran, lehen auzialdian; halakorik balego, behin-behineko neurrietan; auzialdiari amaiera ematen dion epaiaren aurkako errekurtsioan, eta epaiaren betearazpenean, betiere betearazpen-jarduketak auzialdian ebazpen judiziala eman eta hurrengo bi urteetan gertatzen badira.

47 - Katiak, lesio-delitu batean ikertutako baten abokatuak, Iñigo abokatuari, akusazio partikularra erabiliz kaltetuaren defentsan diharduenari, akordio bat proposatu dio. Akordio-proposamen horren arabera, Katiaren bezeroak bere gain hartuko lituzke delituaren ondoriozko erantzukizun penala eta zibila. Kalte-ordainaren zenbatekoari buruzko desadostasuna dagoenez, ez da alderdien arteko akordiorik lortu, eta, azkenik, ahozko epaiketako ekitaldia egin da, non akusazioak auzipetua kondenatzea eskatzen duen eta defentsak, aldiz, auzipetuaren absoluzio librea. Txostenaren izapidean, akusazio partikularren abokatuak epaiketa-organoaren aurrean argudiatu du, inolako baimenik gabe, defentsak nekez euts diezaiokeela bere bezeroaren errugabetasunari, ikusita akordio bat lortzeko prest zegoela orain ukatzen dituen egitateen erantzukizun penala bere gain hartuz. Iñigo abokatuaren jokabidea:

a) Abokatu orok duen betebeharraren aurkakoa da; izan ere, abokatuaren betebeharra da kontrako alderdiaren defentsak egindako adiskidetasunezko akordio-proposamenaren berri ez ematea eta auzitegien esku ez jartzea, kontrako alderdiaren baimen espresua eduki ezean.

b) Abokatu orok duen betebeharraren aurkakoa da; izan ere, abokatuaren betebeharra da akusazioari ez eustea gatazkaren akordio estraofiziala negoziatzen ari den kontrako alderdiaren aurrean.

c) Bat dator arau deontologikoekin; izan ere, kontrako alderdiak ez zuen esku-hartzaile guztiak gogobeteko zituen akordio batekin konformatu nahi izan.

d) Bat dator arau deontologikoekin; izan ere, akusazio partikularrean legez diharduen alderdiak eman dio aurretiazko negoziazioaren berri epaiketa-organoari.

48 - Ernestok negozio-lokal bat du Cartagena hirian, eta errentamendu-kontratu bat sinatu du Evaristorekin, lokalean taberna-diskoteka negozio bat jar dezan. Ernestok eta Evaristok, halaber, errentamendu-kontratutik aparteko beste idazki bat sinatu dute, eta haien artean errentamendu horri dagokionez sor daitezkeen desadostasunak arbitrajepean jartzea erabaki dute. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Kasu honetan ez dago baliozko arbitraje-hitzarmenik, Hiri Errentamenduen Legeak araututako gaiak ezin direlako arbitrajepean jarri.

b) Kasu honetan, baliozko arbitraje-hitzarmen bat dago. Horrek esan nahi du alderdietako batek besteari demanda jartzen badio auzitegi batean, prozesuaren edozein unetan alegatu ahal izango dela arbitraje-hitzarmena dagoela, eta, alegazio hori ikusita, epaileak auziaz arduratzeaz abstenitu beharko du.

c) Kasu honetan, baliozko arbitraje-hitzarmen bat dago. Horrek ez du eragozten ezein alderdik –baita arbitraje-jarduketak izapidetzen ari direnean ere– auzitegi bati kautelazko neurriak hartzeko eskatu ahal izatea edo auzitegiak neurri horiek onartzea.

d) Kasu honetan, ez dago baliozko arbitraje-hitzarmenik, arbitrajepean jartzeko borondatea klausula gisa agertu beharko litzatekeelako errentamendu-kontratuan bertan.

49 - Monicak gai bat eramateko agindu zion Patricia abokatuari. Patriciak 2.000 euroko zerbitzu-sari aurrekontua aurkeztu zion, enkarguak benetan eskatzen duen lana kontuan hartuta ezarritako gutxi gorabeherakoa, eta 1.000 euroko funts-hornidura eskatu zion Monicari, bai hark osorik ordaindu ere. Enkargua amaitzean, Patriciak 2.000 euroko faktura bidali du, bere garaian aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorrira. Faktura horretatik, ordaindutako funtsen hornidura deskontatu du, eta dagozkion zergak aplikatu ditu. Monicak faktura ordaindu du, eta enkargua betetzen egindako jarduketan berri zehatza emateko eskatu dio Patriciai. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Faktura ordaintzeak berekin dakar bertan jasotako zerbitzu-sariak onartzea eta Patriciaren betebeharrak profesionaletatik askatzea.

b) Amaierako minuta bat dator Patriciak aurkeztu zuen gutxi gorabeherako aurrekontuarekin; beraz, Monicarekin lotzen duen harreman profesionalaren baldintza guztiak bete ditu.

c) Minutak zehatz-mehatz eman behar du zerbitzu-sarien kontzeptu zehatzen berri, eta, beraz, Patriciak, kontzeptu horiek justifikatze aldera, xehetasunez azaldu behar du zer jarduketa egin duen.

d) Bezeroarentzat jasotako zenbatekoei buruzko kontuak ematea baino ez da eskatuko, eta bezeroak eskatzen duenean bakarrik.

50 - Jordi, titulua lortu eta berehala, abokatuen elkargo batean sartu zen, eta lanbide horretan aritu da hiru urtez bere kontura. Elkarriketa bat izan berri du Cosmerek, administrazio-zuzenbideko gaietan espezializatutako abokatu-bulego bateko titularrarekin; Jordik ez du esperientzia handirik gai horretan. Jordi has al daiteke Cosmeren bulegorako lan egiten praktikatuko lan-kontratu batekin, azaroaren 17ko 1331/2006 Errege Dekretuarekin bat etorritik, zeinaren bidez arautzen den abokatuen bulego indibidual edo kolektiboetan zerbitzuak ematen dituzten abokatuen izaera bereziko lan-harremanak?

- a) Bai, Jordik Administrazio Zuzenbideko ikaskuntza praktikoa eskuratu behar baitu.
- b) Bai, baldin eta lanbidean bost urtetik gorako antzinatasuna duen tutore bat izendatzen bazaio.
- c) Bai, alderdiek legez aurreikusitako edozein modalitatetan hitzartu dezaketelako kontratua.
- d) Ez, kasu honetan ezin da praktikatuko lan-kontraturik egin.

GAI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO-ALORRAREN ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ALORRAREN ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1 - Manuelak errekurritu nahi du Andaluziako Juntako Ondare Artistikoaren Zuzendaritza Nagusiak eman eta aldekoa ez den ebazpen bat. 2021eko martxoaren 31n jakinarazi zitzaion ebazpen hori, eta ohartarazi zitzaion berorren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal ziola autonomia-erkidego horretako Kultura eta Ondare Historikoko sailburuari hilabeteko epean. Adierazi zein egunetan amaituko den gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko epea:

- a) 2021eko maiatzaren 1ean, egun hori baliogabea ez bada; baina, hala bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
- b) 2021eko maiatzaren 2an, egun hori baliogabea ez bada; baina, hala bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
- c) 2021eko apirilaren 30ean, egun hori baliogabea ez bada; baina, hala bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

2 - Ernesto Madrilgo auzotarra da, eta uste du Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Iraunkortasuneko sailburuaren dekretu bateko xedapen batzuk deusezak direla. Dekretu horren bidez, erkidego horretako ehiza- eta arrantza-baimenak emateko prozedura arautzen da, eta orain gutxi argitaratu da aldizkari ofizialean. Abokatuari galdetu dio zer egin dezakeen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioke Madrilgo Erkidegoko Gobernu Kontseiluari.
- b) Aukerako berraztertze-errekurtsioa edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake dekretu horren aurka.
- c) Ezin du ezer egin; izan ere, itxaron beharko du, Administrazioak dekretu hori aplikatzeko egintzaren bat eman eta horrek bere eskubideak edo legeko interesak kalteztzen dizkion arte, zeharka aurkaratu ahal izateko deuseztat jotzen dituen dekretuko xedapenak.
- d) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake dekretu horren aurka.

3.- Juliak ondare-erantzukizuna eskatu du, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontraketat jo zuen zerga bat arautzen duen Estatuko lege bat aplikatzeak eragin zizkion kalteengatik. Adierazi zeinen eskumena den administrazio-prozedura hori ebaztea.

- a) Ministro Kontseilua.
- b) Ogasuneko ministroa.
- c) Konstituzio Auzitegia.
- d) Presidentetzako ministroa.

4 - Gorka Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko bigarren hezkuntzako irakaslea da, eta eskatu du esleia dakiola Aixerrata BHIko Filosofiako irakasle-lanpostu huts bat. Lanpostu huts hori orain gutxi atera zen lehiaketara. Datu-basean dauden aurrekariak kontsultatu ondoren, sail horrek jakin du Gorkak ez duela parte hartu lanpostu huts hori betetzeko lekualdatze-lehiaketan. Zer egin behar du Administrazio autonomikoak, eskaera hori dela eta?

- a) Gorkari eskatu behar dio eskabidea zuzen dezala; horretarako, hamar eguneko epea eman behar dio, eta adierazi ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.
- b) Aparteko epe bat eman behar dio lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztu dezan.

- c) Deklaratu behar du prozedura iraungita dagoela, ez zuelako eskabiderik aurkeztu lanpostu hutsen lehiaketan parte hartzeko.
- d) Ez du eskabidea onartu behar, argi eta garbi oinarririk ez duelako.

5 - Lolari trafiko-isun bat jarri dio Chiclana de la Fronterako Udalak, hiriguneko abiadura-mugak gainditzeagatik. Arau-haustea 2020ko uztailaren 7koa da; zehapen-espedientea uztailaren 20ko erabaki baten bidez hasi zen; interesdunari uztailaren 22an jakinarazi zitzaion erabaki hori; zehapena 2020ko urriaren 7an ezarri zitzaion, eta 2020ko urriaren 15ean jakinarazi. Adierazi noiztik hasten den zenbatzen arau-haustearen preskripzio-epea.

- a) Carmenen aurkako zehapen-prozedura hasi zenetik, hau da, 2020ko uztailaren 20tik.
- b) Carmenen zehapen-prozedura hasteko erabakia jakinarazi zitzaionetik, hau da, 2020ko uztailaren 22tik.
- c) Lolak araua hautsi zuenetik, hau da, 2020ko uztailaren 7tik.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

6 - Adolfo autonomia-erkidego bateko funtzionarioa da Gizarte Eskubide eta Ongizate Saileko Zuzendaritza Nagusian; parte hartu du Ogasun Sailak deitutako lekualdatze-lehiaketa batean; argitaratutako lanpostuetako bat eskatu du, eta ukatu egin diote. Administrazio-bidea amaituta, Adolfo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea erabaki du. Horretarako, abokatuari galdetu dio zer jurisdikzio-organotan jarri behar duen eta zer prozedura bete behar duen.

- a) Errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Epaitegian jarri behar du, eta prozedura arruntean izapidetuko da.
- b) Errekurtsoa Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan jarri behar du, eta prozedura arruntean izapidetuko da.
- c) Errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Epaitegian jarri behar du, eta prozedura laburtuan izapidetuko da.
- d) Errekurtsoa Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan jarri behar du, eta prozedura laburtuan izapidetuko da.

7 - Monserratek kalteak izan zituen ebakuntza kirurgiko bateko akats mediko baten ondorioz. Ez dago ados Administrazio autonomikoak kalte-ordainerako aitortutako zenbatekoarekin; beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea ebatzi du. Demandatutako administrazioaren letratuak demandari eman dion erantzuna ikusita, abokatuak beharrezkotzat jo du aditu medikoen irizpena eskatzea, frogabide gisa, eta judizialki izendatutako aditu batek egin dezala. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Frogabide hori ezin izango da jada eskatu, ez bada proposatu demanda-idazkiaren berebat atalean.
- b) Frogabide hori eskatu ahal izango da, baldin eta beste egitate garrantzitsu batzuk izan badira demandari erantzuteko idazkiaren auzia ebazteko.
- c) Frogabide hori ezin izango da eskatu, administrazioarekiko auzien prozesuan ezin delako aditu bidezko judiziala eskatu
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

8 - Ione Estatuko Administrazioaren funtzionarioa da, eta erabaki du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea lan egiten duen ministerioko idazkariordearen erabaki baten aurka. Erabaki horren bidez, lanaldia murrizteko eskaera ukatu zaio. Abokatuarengana jo du, azaldu dio ez duela bere kabuz agertu nahi, eta galdetu dio ea horretarako prokuradore batek ordezkatu behar duen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Ez da nahitaezkoa, pertsona bakarreko jurisdikzio-organismo bat arduratuko baita errekurtso horretaz.
- b) Nahitaezkoa da, kide anitzeko jurisdikzio-organismo bat arduratuko baita errekurtso horretaz.
- c) Ezin du administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, baldin eta, aldez aurretik, gora jotzeko errekurtsoa jarri ez badu administrazio-ebazpenaren aurka.
- d) Ionek ezin dio uko egin bere kabuz agertzeari.

9 - Ikerren abokatuak ez du demanda-idazkirik aurkeztu epaitegiak horretarako emandako hogeit hamar egun balioduneko epean. Hala ere, aurkez dezake demanda-idazkia?

- a) Bai, baina idatziz eskatzen badu epea luzatzeko, eta epaitegiak onartzen badio betiere.
- b) Bai, baina demanda aurkeztzen badu epaitegiak errekurtsoa iraungi delako autoa ematen duen eguna heldu aurretik soilik.
- c) Bai, aurkez dezake, baita errekurtsoa iraungi delako autoa jakinarazten zaion egunean bertan ere.
- d) Ez, ezin du aurkeztu, demanda aurkezteko epea luzaezina delako.

10 - Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 45. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, adierazi agiri hauetatik zein ez den nahitaez aurkeztu behar administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera:

- a) Auzitara agertzen denaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

b) Errekurtsogilearen nortasun-agiri nazionalaren edo atzeritarren nortasun-txartelaren kopia.

c) Auzi-jartzailearen legitimazioa egiaztatzen duen agiria, baldin badauka beste batek jaraunspen bidez eskualdatu diolako.

d) Errekurritzen den administrazio-egintza edo -ebazpenaren kopia.

11 - Benitok uste du udal-administrazioak hartutako ebazpen batek oinarrizko eskubide bat kaltetu duela. Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri nahi du oinarrizko eskubideak babesteko prozedura bereziaren bidez, eta abokatuari galdetu dio zer epe duen administrazioarekiko auzi-errekurtsu hori jartzeko:

a) Bi hilabete, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Ezin izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri, aldez aurretik administrazio-bidea agortu behar duelako.

c) Hogei egun, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

d) Aurrekoetatik bat ere ez.

12 - Administrazioarekiko auzien epaitegi batek baiespen-epai bat eman zion Xiraren abokatuak jarritako errekurtsu bati. Errekurtsu hori jarri zuen xedapen orokor autonomiko baten aplikazio-egintza baten aurka, uste zuelako xedapen hori legez kontrakoa zela arau-hierarkiaren printzipioa urratzen zuelako. Horrenbestez, administrazio-egintza deuseztatu zuen, eta errekurtsogileari nahi zuen banakako egoera juridikoa aitortu zion. Epai irmoa izanik, eskumenik ez duenez xedapen orokorraren aurkako errekurtsu zuzenaz arduratzeko, Justizia Auzitegi Nagusiari aurkeztu zion epaitegiak legezkontrakotasun-arazoa, eta auzitegi horren epai batek osorik ezetsi zuen, xedapen orokorra legez kanpokoa izatea baztertuta. Epai horrek irmotasuna hartuta, zer ondorio juridiko izango du epaitegiak ebatzitzekoan?

a) Ez du eraginik izango epaitegiaren epaiaren ondoriozko egoera juridiko zehatzean.

b) Behartuko du epaitegiako prozedura errepikatzen osorik.

c) Behartuko du jarduketa guztiak epaitegiak emandako lehen epaiaren aurre-aurreko unera itzultzera, beste epai bat eman dezan.

d) Legez aurreikusitako auzi bat da, deuseztatutako egintza egin duen Administrazioaren letradua arduratu dadin epaitegiak bideratutako jarduketak deuseztatzeaz.

13 - Angelen abokatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri nahi du xedapen orokor baten aurka, uste baitu manu batzuek larriki eragiten dietela bezeroaren eskubide eta interesei. Gainera, manu horiek eteteko kautela-neurria ere eskatu nahi du. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Eteteko kautela-neurria eska daiteke prozesuaren edozein unetan, auzia frogaldian onartzea erabaki aurretik.

b) Eteteko kautela-neurria eska daiteke errekurtsua jartzeko idazkian soilik.

c) Eteteko kautela-neurria eska daiteke demanda-idazkian soilik.

d) Eteteko kautela-neurria eskatu behar da demanda edo errekurtsua jartzeko idazkian.

14 - Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegi Zentralaren eskumena da administrazioen arteko auziak ebaztea, eta epai bat eman du udal batek jarritako errekurtsua baiesteko eta Estatuko Administrazio Orokorra kondenatzeko toki-entitate horri dirulaguntzako 23.500 euro ordaintzera. Epaiarekin ados ez dagoenez, adierazi zer egin dezakeen Estatuaren abokatuak epai hori aurkaratzeko:

a) Ezin du ezer egin; izan ere, ezin da epai horren aurkako apelazio errekurtsorik jarri 30.000 eurotik gorakoa ez delako.

b) Apelazio-errekurtsua jar dezake Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan.

c) Apelazio-errekurtsua jar dezake Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

d) Apelazio-errekurtsua jar dezake Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan.

15 - 30.000 eurotik gorako prozedura batean, Madrilgo Administrazioarekiko Auzien 5 zenbakiko Epaitegiak iraungitze-autoa eman du Yolandak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsorako; izan ere, Yolandaren abokatuak ez du epez aurkeztu demanda-idazkia. Conchi ez dago ados ebazpen judizial horrekin, eta beste abokatu bati galdetu dio zer egin dezakeen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ebazpen horren aurkako kasazio-errekurtsua jar dezake, prozeduran aurrera egitea ezinezko egiten duen auto bat delako eta horregatik ezin delako apelazio-errekurtsorik jarri.

b) Ezin izango du inolako errekurtsorik jarri ebazpen judizial horren aurka, baina erantzukizun zibila eskatu ahal izango dio abokatuari zabarkeriaz jarduteagatik.

c) Ezin izango du apelazio-errekurtsorik jarri, prozeduraren gaia ez zelako ondoreak zabaltzeko modukoa.

d) Aurrekoetatik bat ere ez.

16 - Natalia Estatuko funtzionarioa da, eta berraztertze-errekurtsoa jarri du Ministerioko idazkariordearen ebazpen baten aurka. Ebazpen horren bidez, oraingo lanpostuaren herrian barik beste herri batean dagoen destino batera nahitaez lekualdatzeko agintzen dio. Horretaz gain, idazki berean eta kautela-neurri gisa, ebazpenaren betearazpena eteteko ere eskatu du. Errekurtsoa jarri duenetik hilabete baino gehiago igaro denez eta ebazpen espresua eman ez denez, honela ulertu behar da:

a) Ebazteko epea iraungi da.

b) Aurkaratutako ebazpenaren betearazpena eten da.

c) Berraztertze-errekurtsoa baietsi da, administrazio-isiltasun positiboaren ondorioz.

d) Kautela-neurria ukatu da, administrazio-isiltasun negatiboaren ondorioz.

17 - Administrazioarekiko auzien epaitegi batek, epai bidez, Albaceteko Udala kondenatu du Yolandari 20.000 euro ordaintzera eta haren ardurapeko ostalaritza-negoziora berriro irekitzera. Epai irmo horren bidez, Yolandak jarritako errekurtsoa baietsi da. Errekurtso hori alkatearen dekretu baten aurka jarri zuen, Albaceteko Udalak negoziora itzeko agindu eta zenbateko horretako isun-zehapena ezarri baitzion haren bidez. Epai horretan, ez zen zehaztu epaitza betetzeko epea.

Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Epaiak irmoa izan bezain laster, Justizia Administrazioaren letraduak alkateari jakinarazi behar izan zion hogei eguneko epean.

b) Yolandak nahitaez betearazteko eskatu ahal izango du, alkateari epaiak bete zezan jakinarazi eta hiri hilabete igaro ostean.

c) Udalak alegatzen badu epaiak betetzea legez ezinezkoa dela, epaiak loteslea izango da epaitegiarentzat, eta kalte-ordaina baino ezin izango du ezarri, hala badagokio.

d) Udalak epaitegiari eskatu ahal izango dio ordaindu behar duen zenbateko hori konpentsa dadila udal-administrazioak Yolandaren aurka duen zerga-kreditu batez.

18 - Mariak erabaki du errekurtsoa batean atzera egitea. Errekurtso hori berak eta beste bi lankidek jarri zuten funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesua amaitzen zuen ebazpenaren aurka, ez zituztelako sartu karrerako funtzionario izendatutako izangaien behin betiko zerrendan. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Mariak atzera egiteak eragina izango du beste bi errekurtsogileengan; izan ere, administrazioarekiko beste auzi-errekurtso bat jarri beharko dute hilabeteko epean, Mariak aurkeztutakoa onartzen duen ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

b) Atzera egiteko eskatuta, Justizia Administrazioaren letraduak prozedura amaitutzat jotzeko dekretua emango du, izapide gehiagorik gabe, eta aginduko du autoak artxibatze eta administrazio-espeditentzia itzultzeko.

c) Epaitegiak edo auzitegiak atzera egite hori onartzen badu, horrek ez du eragingo nahitaez Maria kondenatzea kostuak ordaintzera.

d) Atzera egiteko eskatuta, epaileak edo auzitegiak auto bat emango du, izapide gehiagorik gabe, prozedura amaitutzat jotzeko eta agintzeko autoak artxiba daitezela eta administrazio-espeditentzia itzul dadila.

19 - Farah Siriako adin nagusiko emakume bat da, eta nazioarteko babes-eskabidea aurkeztu zuen Madrilgo Asilo eta Babesaren Bulegoan. Eskabidea erregistratu zuenetik, hilabete baino gehiago igaro da eta Barne Ministerioak oraindik ez dio jakinarazi horri buruzko inolako ebazpenik. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ulertu behar da eskabidea izapidetzeko onartu dela eta Farah behin-behinean egon daitekeela Espainian, eskabidea behin betiko ebatzi arte.

b) Ulertu behar da eskabidea baietsi dela, eta Farahri asilo-eskabidea eta babes subsidiarioa eman zaizkiola gure herrian.

c) Ulertu behar da eskaera ez dela izapidetzeko onartu eta Farah Espainiatik ateratu behar duela hamabost eguneko epean –eskabidea aurkeztu zuenetik hilabete bete eta hurrengo egunetik aurrera–.

d) Ulertu behar da eskabidea ezetsi dela eta Farah Espainiatik ateratu behar duela hamabost eguneko epean –eskabidea aurkeztu zuenetik hilabete bete eta hurrengo egunetik aurrera–.

20 - Yusuf Atzeritarrak Barneratzeko Zentroan dago, bermatu behar baita kanporatze-zehapena betetzen dela, hala erabaki zelako oso arau-hauste astun batengatik ireki zitzaion espeditentzian; arau-hauste hori aurreikusita dago Atzeritarrak Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzeritar horiek gizartratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan. Zentroan bertan eta sartu zen egun berean, eskabide bat aurkeztu zuen Espainian nazioarteko babesa izateko; izan ere, argudiatu zuenez, bere herriko agintariek erlijioarengatik jazartzen zioten. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Yusufek aurkeztutako eskabidea ez da izapidetzeko onartu behar, ezin delako aurkeztu Atzeritarrak Barneratzeko Zentrotik.

b) Eskabide hori izapidetzeko, Administrazioak hau bete beharko du: mugako postuetan aurkeztu diren nazioarteko babes-eskabideetarako xedatutakoa.

c) Yusufek aurkeztutako eskabideak ez du eragotziko edo etengo lurralde nazionaletik kanporatzeko betearazpena; hala ere, azkenik babesa ematen bazaio, Yusufek lurralde nazionalera lekualdatzeko eskatu ahal izango die Espainiako agintariei.

d) Aurrekoetatik bat ere ez.

21 - Inmaculadaren jabetzako landa-finka bat desjabetzeko prozedura batean, ez dago inolako adostasunik jabearen eta Administrazio desjabetzailearen artean balio justua zehazteko; ondorioz, Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiak ezarri du balio hori. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Finka berriz ebaluatu beharko da, baldin eta Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiak erabaki eta lau urte igarotzen badira finkatutako balio justuaren zenbatekoa ordaindu edo kontsignatu gabe.

b) Balio justua zehaztu ondoren, Administrazio desjabetzaileak dagokion zenbatekoa ordainduko du lau hilabeteko epean gehienez.

c) Balio justua dela eta, Inmacularen eta Administrazio desjabetzailearen arteko auzi edo arazorik badago, Inmaculadak eskubidea izango du finkatutako zenbateko osoa behin-behinean eman dakion, eta emate hori auziaren emaitzaren mende geratuko da.

d) Inmaculadak birritan uko egiten badiu Administrazio desjabetzaileak emandako prezio justua hartzeari, finkatutako kopuruarekin ados ez dagoelako, Administrazio desjabetzailea ordaintzeko betebeharretik aske geratuko da behin betiko.

22 - Paco nekazaria da eta abokatu batenera joan da, badirelako zazpi egun bere erremolatxa-soroetan autobia bat eraikitzeke makinak sartu direnetik eta harrezkero hor daudelako. Ez zaio jakinarazi inolako desjabetze-prozedurarik, eta ez dago desjabetzeen eraginpeko jabeen zerrendetan. Administrazio desjabetzailearen egitate-bideko jardun horren aurka egin nahi badu, zer urrats eman behar du?

a) Pacok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake zuzenean sei hilabeteko epean, egitate-bideko jarduna hasi eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Pacok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake zuzenean hogeitaz eguneko epean, egitate-bideko jarduna hasi eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Pacok gora jotzeko errekurtsioa jarri behar du Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiari.

d) Pacok alde zuzenetik errekerimendua egin behar dio Administrazio jardulari, uzteko eskatzeko. Errekerimendua egin eta hamar egunera ez badu eskatutakoa betetzen, orduan soilik gauzatu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

23 - Unibertsitate publiko batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen udal baten aurka, emandako 6.000 euroko dirulaguntza itzultzeko erabakia hartu zuen udal-ebazpena aurkaratzeko. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak ezespenepea eman dio errekurtsio horri. Unibertsitatearen defentsaz arduratzen den abokatu-bulegoan galdetu dute ea epai horren aurkako errekurtsioa jar daitekeen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ezin da errekurtsioa jarri.

b) Kasazio-errekurtsoa jar daiteke Auzitegi Gorenean.

c) Errekurtsoa jar daiteke Kontu Auzitegian.

d) Apelazio-errekurtsoa jar daiteke Justizia Auzitegi Nagusian.

24 - Frogaldia amaitu da prozedura arruntaren bidez izapidetutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa batean; baina, haren ardura duen Administrazioarekiko Auzien epaileak beharrezkotzat jo du beste frogagina eginbide bat egitea. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Horrela egitea erabaki ahal izango du alderdietako batek edo biek aldi berean eskatzen badiote soilik.

b) Frogaldia amaitu ondoren frogagina eginbide gehiago egitea ofizioz erabakitzeke ahalmena kide anitzeko auzitegiei soilik aitortu zaie; ez, berriz, kide bakarreko epaitegiei.

c) Eginbide hori egitea ofizioz erabaki ahal izango da proba hori adituen irizpena bada soilik; ez, berriz, Prozedura Zibilaren Legean zerrendatutako gainerako frogabideak badira.

d) Frogagina eginbide hori egitea ofizioz erabaki ahal izango du auzia epairako prest dagoela deklaratu arte.

25 - Kasazio-errekurtsoari dagokionez, adierazi egoera hauetako zeinetan ez dago kasazio-interes objektiboaren presuntzioa.

a) Kasazioan aurkaratutako ebazpena judiziala nahita urruntzen bada jurisprudentziatik, okertzat jo daiteke.

b) Errekurritutako epaia interes orokorreko xedapenen bat deuseztatzen badu, salbuespenik gabe.

c) Aurkaratutako ebazpen judizialak ebazten baditu organismo arautzaileen, gainbegiratze-organismoen edo estatu-agentzien egintzen edo xedapenen aurkako errekurtsioak, Auzitegi Nazionalerako Administrazioarekiko Auzien Salak epaitu behar dituzten.

d) Aurkaratutako ebazpen judizialean aplikatutako arauak izan badira jurisprudentziarik gabeko gainera erabakitzeke arrazoiak sostengatzen dutenak.